

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

GOGORA

1. Memoria historikoa Udalak 2021	2
2. Dokumentalak egitea eta liburuak argitaratzea 2021	4
3. Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2021	5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria historikoa Udalak 2021

2.- Araua

EBAZPENA, 2021ko uztailaren 27koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek eta gainerako toki-erakundeek memoria berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzak deitzen dituen 2021. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104909e.shtml>

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105958e.shtml?BOPV_HIDE_CALENDAR

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen xedea da Euskadin memoriaren tokiko ikerketa eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko borroka berreskuratzeko eta bultzatzeko proiektuak diruz laguntzea, Gerra Zibiletik gaur egun arte. Era berean, Memoria Historikoaren ibilbideak taxutzera eta sinbologia frankista kentzera bideratutako jarduerak diruz laguntzen dira.

Guztira 137.500 euro bideratzen dira laguntza horietara, eta proiektu bakoitzak gehienez 10.000 euroko laguntza izango du.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 26. Zehazki, 4 ikerketa, 14 memoriaren ibilbide, 2 jardunaldi eta 6 omenaldi-ekitaldi.

116.697,82 euroko zenbatekoa esleitu zen bideratutako 137.500 euroetatik; izan ere, 2 eskatzailek eskaeran atzera egin zuten, dokumentazioa zuzentzeko ezarritako epeak bete ez zituztelako.

Azpimarratu behar da memoriaren ibilbideak 2020ko deialdian sartu zirela eta dirulaguntza gehien jaso duten jarduerak izan direla aurrean.

Oraindik ezin da zehatz-mehatz kuantifikatu lortutako emaitzak, ez baita justifikazioen izapidetza amaitu.

Urte hauetako lankidetzaren ondoren, Gogorak oso positiboki baloratzen ditu dirulaguntzen programa honi esker, hein handi batean, garatutako tokiko ikerketa-proiektuak. Udallerriak ikertutako gertakarien protagonistengandik hurbil daudenez eta haien artxibo eta erregistro propioak eskuragarri daudenez, batzuetan udallerrian bertan gertatutako gertaeretan sakontzen dute, memoria bertako biztanleen esperientziara gehiago hurbilduz. Memoria Historikoaren Ibilbideak konfiguratzeko eta garatzeko



jarduketak ere modu positiboan baloratzen dira, izan ere, memoria kolektiboan duten eraginagatik, balio eta askatasun demokratikoen defentsarekin lotuta daudelako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Dirulaguntza kopurua	30	26



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dokumentalak egitea eta liburuak argitaratzea 2021

2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko ekainaren 22koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko dirulaguntzak deitzen dituen 2021. Urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/07/2103794e.shtml>

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105957e.shtml?BOPV_HIDE_CALENDAR

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gogora Institutuak diruz laguntzen du liburu berriak argitaratzea eta Euskadiko memoria demokratikoa berreskuratzeko ikus-entzunezko ekoizpenak egitea, Gerra Zibiletik gaur egun arte, memoriari buruzko dokumentu- eta ikus-entzunezko funts bat sustatzeko. Lanak 2021eko abenduaren 31rako amaituta egon behar dute, eta haien gaiak memoria historikoaren eta oraintsuko memoriaren egia berreskuratzearekin eta argitzearekin lotuta egongo dira, demokraziaren eta giza eskubideen defentsaren ikuspegitik, eta haren urraketa salatzearekin. Deialdiak 100.000 euro ditu, eta proiektu bakoitzak 10.000 euroko laguntza izango du gehienez ikus-entzunezkoen kasuan, eta 5.000 eurokoa liburuen kasuan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 10; 3 dokumental eta 7 liburu.

Deialdira bideratutako zenbatekoa esleitu zen: 51.684,43 euro.

Baztertutako 10 proiektuetatik 8 deialdiak eskatzen duen fasean amaituta ez egoteagatik izan ziren, eta urte amaieran izanik, beste 2 proiektuk ez zuten izapidetzearekin jarraitu hurrengo urtean berriz aurkezteko asmoarekin.

Gizartean izan zezakeen eraginari dagokionez, bereziki baloratu ziren orain arte gai berrienei edo gutxiago jorratutako gaiei buruzko proiektuak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza kopurua	12	10



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2021

2.- Araua

EBAZPENA, 2021ko apirilaren 15ekoa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita 2020. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeari buruzko proiektuak egin ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103685e.shtml>

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105734e.shtml?BOPV_HIDE_CALENDAR

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-deialdi honek 112.500,00 euro ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 1936-1977 aldian memoria historikoa berreskuratzeko, ikertzeko eta ezagutarazteko eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko proiektuak diruz laguntzen dira.

Dirulaguntza eskatzeko aukera dute, estatutuetan, helburu modura, memoria historikoaren berreskurapena jasota duten eta Euskadiko Elkarte eta Fundazioen Erregistroan inskribatuta elkarte eta fundazioak.

Zehazki, honako jarduerak sustatzeko bideratuko da laguntza:

- Gerra zibilaren eta diktaduraren errepresioarekin, erbestearekin, eta balio demokratikoen errealitate eta egoerarekin loturiko gertaerak eta prozesuak berritzera bideraturiko ikerketak egitea.
- Errepresioarekin, erresistentziarekin eta gizarte demokratikoa eraikitzearekin zerikusia duten pertsonak eta gertakizunak oroitze edo omentzeko jarduerak.
- Elkarteak antolatutako hedapen-jarduerak: jardunaldiak, mintegiak, aldi baterako erakusketak eta liburuxkak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 21. Diruz lagundutako jarduera gehienak ikerketara eta hedapenera bideratu dira.

Deialdira bideratutako 112.500,00 eurotik 103.600,60 euro esleitu dira, 3 proiektu atzera egin baitute eskabidean.



Merezi du azpimarratzea, 2021ean bizi izandako egoera sozio-sanitarioaren ondorioz, elkarte gehienek zailtasun handiak izan dituztela proiektuak gauzatzeko, eta, hasierako planei dagokienez, aldaketak eta egokitzapenak egin dira. Era berean, zenbait ez-betetze oso edo partzialak eta uko-egiteak gertatu dira, baina oraindik ezin ditugu zehatz-mehatz kuantifikatu, ez baitugu amaitu justifikazioen izapidetzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Dirulaguntza kopurua	20	31